# EGRESATUEN GOGOBETETZE INKESTAK: 2018/19ko EMAITZAK

Inkestak 2018ko irailaren 1etik 2019ko azaroaren 30era bitartean egin ziren, egresatuak idazkaritzara joan zirenean tituluaren bila. Guztira, 99 inkesta bete ziren, honela banatuta:

| | |
|---|---|
| Topografia | 5 |
| Informatika | 17 |
| Kimika | 7 |
| Mekanika | 45 |
| Elektronika | 25 |
| **GUZTIRA** | 99 |

Generoari dagokionez, 78 gizonek (% 78,78) eta 21 emakume (% 21,21) bete zituzten.

| | **Kimika** | **Topografia** | **Informatika** | **Elektronika** | **Mekanika** | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 6 | 3 | 4 | 3 | 5 | 21 |
| Gizonak | 1 | 2 | 13 | 22 | 40 | 78 |
| Guztira | 7 | 5 | 17 | 25 | 45 | 99 |

**Gogobetetze maila arloz arlo:**

**Jasotako prestakuntza:**

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan jasotako prestakuntzari 3,82 puntu eman diote 5etik, hau da, aurreko ikasturtean baino 0,13 gutxiago.




## Aholkularitza eta komunikazioa:

Arlo honetako gogobetetze maila 4,18 puntukoa da, aurreko ikasturteetakoa baino hobea (aurreko puntuazioak: 3,72; 3,5 ;3,26 eta 3,98). Beraz, orain arteko puntuaziorik handiena izan da.



## Instalazioak eta baliabideak:

Arlo honetan balorazioa 3,77 puntukoa izan da, hots, 0,21 puntu gutxiago iaz baino. Hala ere, 2017 ikasturtean baino handiagoa da, orduan 3,67 puntu ingurukoa izan baitzen.




## Enplegua.

Ikasle egresatuen % 71k lana aurkitu dute. Irudi honetan titulazioen araberako banaketa ikus daiteke:



Iazko datuarekin alderatuta, 14 puntuko igoera izan da arlo horretan.

Inkesta bete duten pertsonetatik (99) 71k lana aurkitu dute, 12 emakumeak dira (% 17) eta 59, gizonak (% 89,09).




**Tituluaren premia lan egiteko:**



Lana aurkitu dutenetatik % 70,40k titulua behar izan dute lan egiteko. Generoei begira, aurreko urteetan gertatu denaz bestela, gizonen kasuan % 69,49k behar izan du titulua lan egiteko, eta emakumeen kasuan, aldiz, % 75ek.




## Lana aurkitzeko behar izandako denbora

Irudi honetan ikus daiteke egresatuek zenbat denbora behar izan duten lana aurkitzeko:




Batezbestekoa hilabete eta erdiaren azpitik dago, hilabete inguru da. Hortik aldentzen diren titulazio bakarrak Elektronikako Gradua eta Topografiako Gradua dira, zenbait ikasleren kasu konkretuengatik.

**Ikasten emandako urteak:**




Ikasleek batez beste 4,38 ematen dute ikasten. Gizonen batezbestekoa 0,615 handiagoa da emakumeena baino.






Aurreko ikasturtearen aldean, batezbesteko totala nabarmen jaitsi da (4,94tik 4,38ra).

## Graduatu ondoko prestakuntza:









Aurreko ikasturtean bildutako datuen aldean, hamabi pertsona gutxiagok jarraitu dute ikasten titulua eskuratu ondoren. Aurreko ikasturtean bezala, aukerarik ohikoena izan da master bat egitea beste unibertsitate batean. Era berean, ikasten jarraitzen duten gehienak gizonezkoak dira, lehen bezala.

**Praktikak:**

Ikasleen % 82,82k enpresetako praktikak egin zituen ikasketen barruan. Gogobetetze mailari dagokionez, arlo horri 4,15 puntu eman diote 5 puntutik.

Sexuari dagokionez, emakumeen % 76,19k egin zituzten praktikak, eta gizonen % 85,89k.

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Kimika** | 6 | 5 | 1 |
| **Topografia** | 2 | 2 | 0 |
| **Informatika** | 16 | 3 | 13 |
| **Elektronika** | 23 | 3 | 20 |
| **Mekanika** | 35 | 3 | 33 |
| **Guztira** | 82 | 16 | 67 |

**ERASMUS:**

Inkesta bete dutenen % 18k hartu zuten parte Erasmus programan, gehienak gizonezkoak. Ikasleek oso kalifikazio altua ematen diote programari: 5 puntutik 4,82.

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| **Kimika** | 0 | 0 | 0 |
| **Topografia** | 0 | 0 | 0 |
| **Informatika** | 1 | 0 | 1 |
| **Elektronika** | 4 | 0 | 4 |
| **Mekanika** | 13 | 1 | 12 |
| **Guztira** | 18 | 1 | 17 |

Azkenik, gradura egokitzeko ikastaroak egin dituzten zenbait ikaslek arazoak izan dituzte inkesta betetzeko, ez baitzekiten zer jarri ikasketen iraupenari dagokionez. Beraz, komeniko litzateke lauki berri bat gehitzea ikasle horiek kontuan hartzeko.

Gasteiz, 2019ko abendua